ekoetxea | Urdaibai

# INGURUMEN-ADIERAZPENA 2024



ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD




© Ihobe S.A. 2025eko otsaila

Argitaratzen du
Ihobe, Ingurumen-jarduketarako sozietate publikoa
Industria, Trantsizio Energetiko eta
Jasangarritasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua
48011 Bilbo
Tel: 94 423 07 43
**www.ihobe.eus**
@Ihobe_Eus

**www.ekoetxea.eus**

ekoetxea | Urdaibai

# INGURUMEN-ADIERAZPENA 2023


1. ERAKUNDEAREN AURKEZPENA 6
1. Kokapena 8
2. Identifikazio-datuak 9
3. Jarduerak 9
4. Antolaketa- eta kudeaketa-egitura 10

2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPENA 12
1. Erakundearen ingurumen-kudeaketa 13
2. EMAS Erregistroaren esparrua 13
3. Ingurumen-konpromisoa 15
4. Ingurumena kudeatzeko sistemaren deskribapena 15
5. Ingurumena kudeatzeko antolaketa-egituraren deskribapena 16

3. ERAKUNDEAREN INGURUMEN-ALDERDIEN DESKRIBAPENA 18
1. Ingurumen-alderdiak identifikatzeko eta ebaluatzeko metodologia 19
1.1. Zuzeneko ingurumen-alderdiak eta ebaluazio-irizpideak 20
1.2. Zeharkako ingurumen-alderdiak eta ebaluazio-irizpideak 20
1.3. Larrialdi-egoeretako ingurumen-alderdiak eta ebaluazio-irizpideak 21
1.4. Ebaluazioa: alderdi garrantzitsuak 21
2. Ingurumen-alderdi garrantzitsuak 21

4.INGURUMEN-PROGRAMAREN HELBURUAK 2023rako 24
1. helburua: Ingurumen-hezkuntzako eskaintza eta bisitarien ingurumen-portaera hobetzea 26
2. helburua: Ur-kontsumoan efizientzia hobetzea 27
3. helburua: Elektrizitate-kontsumoan efizientzia hobetzea 28
4. helburua: Ingurumen-irizpideak inplementatzea Urdaibaiko Ekoetxearen kudeaketan 28



| | |
|---|---|
| **5. INGURUMEN-PORTAERAREN DESKRIBAPENA** | **29** |
| Ingurumen-portaeraren adierazleak | 30 |
| 1. Energia | 32 |
| Zuzeneko energia-kontsumo guztizkoa | 32 |
| Energia berriztagarriaren guztizko kontsumoa | 36 |
| 2. Materialak | 37 |
| 3. Ura | 39 |
| Urteko guztizko ur-erabilera | 39 |
| 4. Hondakinak | 41 |
| Urtean guztira sortutako hondakinak | 41 |
| Urtean guztira sortutako hondakin ez-arriskutsuak | 43 |
| Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak | 43 |
| Urtean guztira sortutako hondakinak | 44 |
| 5. Lurzoruaren erabilera biodibertsitatearekin lotuta | 44 |
| Lurzoruaren guztizko erabilera | 44 |
| 6. Emisioak | 45 |
| Berotegi-efektuko gasen urteko guztizko emisioak | 45 |
| Urteko guztizko aire-emisioak | 46 |
| **6. ERREFERENTZIA SEKTORIALEKO DOKUMENTUAK: INGURUMEN-ADIERAZLEEN DEFINIZIOA** | **48** |
| Ingurumena kudeatzeko jardunbide egokienak bulego jasangarrietarako | 50 |
| Ingurumena kudeatzeko jardunbide egokienak ingurumen-hezkuntzan eta informazioaren zabalkundean | 52 |
| **7. 2024rako HELBURUEN PROGRAMA** | **53** |
| **8. EKOETXEA URDAIBAIREN INGURUMEN-LEGERIAREN ETA BESTE eskakizun BATZUEN BETETZE-MAILA** | **55** |
| 1. Ekoetxea Urdaibairen ingurumen-portaeraren beste faktore batzuk | 62 |
| **9. INGURUMEN-ADIERAZPEN HAU EGUNERATZEKO DATUAK** | **64** |

# 1.

# ERAKUNDEAREN AURKEZPENA



# Ekoetxea Sarea



**Ekoetxea, Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarea**, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du Ihobe ingurumena kudeatzeko haren sozietate publikoaren bitartez.

**Ekoetxea Sarea** zentro propioek eta zentro laguntzaileek osatzen dute. Zentro propioak 4 dira (Urdaibai, Meatzaldea, Azpeitia eta Txingudi), baina aurreikusita dago 2025ean Sobrongo Ekoetxea sartzea, eta 2027an Añanako Ekoetxea, pare bat urtean. Gainera, Mater (Ontzi Museo Ekoaktiboa) dago zentro laguntzaile gisa. Hain zuzen, harekin dagoeneko pilotatutako esperientziak hura lehen zentro laguntzaile gisa bermatzen du.

Azken 5 urteetan, ekoetxeek Euskal Autonomia Erkidegoko milioi erdi bisitari baino gehiago jaso dituzte.

**Ekoetxea Sarea** proiektu bizia eta dinamikoa da, eta bere 2022-2024 Plan Estrategikoa berritu du, 2030erako garapen jasangarrirako helburuetan oinarrituta. Xede du biodibertsitatearen, klima-aldaketaren eta ekonomia zirkularraren inguruko politikak pertsonekin lotzea. Horrela, ekoetxe bakoitza interpretazio-zentro bat izatetik ingurumen-zentro bat izatera igarotzen da, herritarrengandik hurbil dauden ekipotzat ulertuta.

Gaur egun, **Ekoetxea Sarea** eraldatze-prozesuan dago. Prozesu horren helburua da gizarte gisa aurre egin behar diegun trantsizio ekologikoaren ondorioz ditugun erronkei erantzutea. Horrela, bidelagun eta erreferente bihurtzen da, pertsonei ingurumen-politiketan zehaztutako erronkak ulertzen, aurre egiten eta gainditzen laguntzeko.

**Ekoetxea Sarea**ren helburua da pertsonen pentsaera eta jardunbidea modu jasangarrira aldatzea. Horretarako, eraldaketa ekosoziala bultzatu nahi da ingurumen-politiken bidez, modu digital eta presentzialean, ingurune enblematikoetan, herritarrak inplikatzeko eta herriarentzat balioa sortzeko.

## Ekoetxea Urdaibai



**Ekoetxea Urdaibai Ekoetxea Sare** honen barruan dago, eta EMAS Erregelamenduaren arabera erregistratutako lehen zentroa da (ES-EU-0000146 zenbakia).

**Ekoetxea Urdaibai** Euskal Autonomia Erkidegoko biosfera-erreserba bakarrean dago. Urdaibai Biosfera Erreserbak, txikia izan arren (22.000 hektarea), dibertsitate natural paregabea du: 729 fauna-espezie, 821 flora-espezie, 86 habitat eta interes geologikoko 52 leku, Natura 2000 Sarean sartuta dauden kontserbazio bereziko 3 eremu (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko ere-

mu (HBBE) bat. 1993tik natura-intereseko Ramsar hezegunea da, eta galtzeko arriskuan dauden edo Batasunaren interesekoak diren 85 espezie ditu.

Urdaibaiko lurraldea Biosferaren Erreserba izendatu zuen UNESCOk 1984an, eta Eusko Legebiltzarrak, bost urte geroago, 5/1989 Legea onartu zuen, gune hori babestu eta antolatzeari buruzkoa, bertako ekosistema guztiak leheneratu daitezen babestu eta bultzatzeko helburuarekin, gune horren interes naturala, zientifikoa eta ingurumen-hezkuntzarekin lotutakoa kontuan hartuta.

## 1. KOKAPENA

**Ekoetxea Urdaibai** Busturiko (Bizkaia) San Bartolome auzoan dago, Urdaibai Biosfera Erreserbaren gunean, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ekosistema gehien dituen eremuetako bat da. Horrek esan nahi du biodibertsitate handiagoa ere badagoela.

**Ekoetxea Urdaibai**ren egoitza Madariaga Dorretxean dago. Dorretxe hori eraikin berezia da, Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa, eta Urdaibaiko estuarioaren eremu osoa ikus daitekeen leku geoestrategiko batean dago.

Etxea XV. mendean eraiki zuten, bando-gerren garaiko dorretxe gisa, eta orduko defentsa-eginkizunak zituen. XVII. mendean, alboko jauregia eraiki zuten bizitegi-eremuak egiteko. Urteak igaro ahala, dorretxea inguruko nekazaritza-jardueran integratu zenean, gelak handitu egin zituzten, eraikinaren inguruko lurrak okupatzen zituzten 5 hektareen nekazaritza-zaintzaz eta -ustiapenaz arduratzen ziren familiak hartzeko.

Erlojuaren dorrea 1851koa da, eta San Bartolomeko auzotar batek eraiki zuen, haren erabilera Busturiko herriari lagatzeko asmoz. Hura bezain garrantzitsua da inguruko ondare arkitektonikoa, historikoa, kulturala eta artistikoa. Horren adibide da Ekoetxea dagoen eraikina bera: XV. mendeko etxea, Madariaga Dorretxea.






## 2. IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | |
|---|---|
| **Izen soziala** | San Bartolome auzoa 35, 48350, Bizkaia |
| **Helbidea** | 94 687 04 02 |
| **Telefonoa** | Ingurumen-hezkuntza |
| **Jarduera** | Ihobe sozietate publikoak  Ekoetxea Urdaibain garatzen duen jasangarritasunerako hezkuntza-jarduera kudeatzea |
| **Irismena** | A01024223 |
| **IFZ** | 85.52 Kultura-hezkuntza |
| **EJSN** | 91.02 Museoetako jarduerak |
| **Enplegatu-kopurua** | 13 |
| **Lege-arduraduna** | Alexander Boto Bastegieta |
| **Ingurumen-arduraduna** | Ainhoa Díez de Salazar |
| **Posta elektronikoa** | Ainhoa.DiezDeSalazar@ihobe.eus |

## 3. JARDUERAK

**Ihobe**k kudeatzen eta sustatzen duen euskal herritarrentzako ingurumen-jasangarritasunerako hezkuntza-proiektuaren ardatzetako bat da **Ekoetxea Sarea**.

Esan bezala, **Ekoetxea Sarea** osatzen duten ingurumen-zentroetako bat da Ekoetxea Urdaibai, eta bera bisitatzen duten pertsonei adin eta publiko guztientzat egokitutako esperientzia ugari eskaintzen dizkie:



- **Erakusketa-eremu iraunkorra.** Bertan, ibilbide bat proposatzen da munduko aberastasun biologikoa behatzen hasteko eta pixkanaka Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatera hurbilduz joateko, eta, azkenik, Urdaibai Biosfera Erreserbaren balio ekologiko handia preziatzeko.
- **Aldi baterako erakusketak.** Bi gune daude aldi baterako erakusketak hartzeko, 1. solairuan eta zero solairuan. Erakusketak betiere biodibertsitatearen gaiarekin daude lotuta.
- **Askotariko jarduerak.** Jarduera hauek jendeari oro har zuzenduta daude, eta bisita gidatuak, itsasontzi-txangoak, mendi-txangoak eta abar biltzen dituzte, eta lantegiak ere ematen

dira, guztiak dibertsitate biologikoarekin lotuak, dibertsitate hori modu interaktiboan eta dinamikoan pertsonengana hurbiltzea eta natura errespetatzea sustatuta.



⇨ Jarduera guztiak lotuta daude, era batera edo bestera, gure inguruko natura- eta kultura-ondarearekin, eta era jasangarriagoan bizitzen ikasteko modua erakustera bideratuta daude. **Eskola-programa.** Ingurumen Hezkuntza eta Sentsibilizazioko Eskola Programa, Ingurumeneko Esparru Programaz gain, LOMLOEren esparruan sartuta dago, Hezkuntzari buruzko 2/2016 Lege Organikoa aldatzen duen 3/2020 Lege Organikoan, alegia. Bada, programa hau da Ekoetxea Urdaibairen jarduera nagusietako bat.

Ikastetxeentzat diseinatutako programa bat da, eta ikaskuntzaren ardatz nagusia naturarekiko zuzeneko kontaktuan oinarrituta dauka. Lan-jardunaldiak diseinatzen dira adin guztietako ikasleekin, egun ahaztezina igaro dezaten paisaia-dibertsitate gaindiezina duen ingurune natural batean: Euskadin dagoen biosfera-erreserba bakarrean, Urdaibain.

# 4. ANTOLAKETA- ETA KUDEAKETA-EGITURA

## ADMINISTRAZIO-EGITURA

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Ingurumen Sailburuordetzari atxikitako sozietate publiko bat da Ihobe.



## ZUZENDARITZA-EGITURA

Ihoberen antolaketa-egitura 3 eremu operatiboren inguruan egituratzen da: ekintza klimatikoa, ekonomia zirkularra eta ingurumen-jasangarritasuna. Horiek, zuzendaritza estrategikoekin eta zuzendaritza nagusiarekin berarekin koordinatuta, Euskadiko ingurumena hobetzeko proiektuen buru dira. Ingurumen-jasangarritasunaren arloak hartzen du euskal herritarrentzako ingurumen-jasangarritasunerako hezkuntza-proiektua, eta Ekoetxea Urdaibain gauzatzen da.

ZUZENDARITZA-EGITURA




## EGITURA OPERATIBOA

Ingurumen Jasangarritasunaren Arloa ingurumen-jasangarritasunerako hezkuntza-proiektuaren kudeaketa operatiboaz arduratzen da. Proiektuaren helburu nagusia Ekoetxea Sarea kudeatzea da, herritarrekiko hurbiltasunezko azpiegitura eta tresna den heinean. Ekoetxea Sareak 4 zentro ditu gaur egun, eta horietako bat Ekoetxea Urdaibai da. Ekoetxea Urdaibai Madariaga Dorretxean dago, eta Madaixagane jatetxearekin eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuaren bulego teknikoekin partekatzen du gunea. Azken hori, gainera, eraikinaren titularra eta jabea da.





# 2.

# INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPENA




# 1. ERAKUNDEAREN INGURUMEN--KUDEAKETA

**Ihobe**k, bere izateko arrazoiagatik beragatik, kontuan hartuta **Ekoetxea Urdaibai**ren jarduera eta kokaleku naturala, Ekoetxea Sarearen kudeaketako urte hauetan ingurumen-aldagaia aplikatu du zentro horietako jarduerak garatzean. Horretarako, zentroei ingurumena kudeatzeko beren sistemaren metodologia aplikatzeko aukera eman die.

**Ekoetxea Urdaibai**ren kasuan, 2022tik aurrera, **Ekoetxea Urdaibai**k ingurumena kudeatzeko bere sistema propioa landu, onartu eta ezartzen du, eta 2023an EMAS Europako Sistemaren Erregistroa lortu zuen (aurrerantzean, “EMAS Erregistroa”).

# 2. EMAS ERREGISTROAREN ESPARRUA

**Ekoetxea Urdaibai**k ingurumena hobetzeko konpromisoari eutsi nahi dio EMAS Erregistroaren bidez, 1221/2009, 1505/2017 eta 2026/2018 erregelamenduen arabera.

Horregatik, ingurumena kudeatzeko sistema bat diseinatu, onartu eta ezarri du irismen honekin: “Ihobe sozietate publikoak Ekoetxea Urdaibain egiten duen jasangarritasunerako hezkuntza-jarduera kudeatzea”.

Irismen horrek barne hartuko du Madariaga Dorretxean **Ekoetxea Urdaibai**k okupatzen dituen guneetan jarduera hori garatzea, taberna-jatetxearen jarduera kanpoan utzita, hori ez baitago ingurumen-hezkuntzako jardueraren barruan.

Hurbileko agertoki batean eta arian-arian, sarea osatzen duten gainerako ekoetxeetara zabalduko da EMAS ziurtapena.

# 3. INGURUMEN-KONPROMISOA

# INGURUMEN-POLITIKA

## EKOETXEA URDAIBAI

Ekoetxea Urdaibai Busturian dago (Bizkaia), Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ekoetxea Sarea osatzen duten ingurumen zentroetako bat da, jasangarritasun-hezkuntzara bideratuta dago eta Ihobe Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak kudeatzen du.

Zentroaren helburu nagusia da pertsonen pentsamoldea aldatzea eta modu jasangarriago batean jardutea.

Izateko arrazoia kontuan hartuta, eta Ihoberen politika korporatiboarekin lerrokatuta, erakunde kudeatzailea den aldetik, Ekoetxea Urdaibaik konpromiso irmoa hartuko du euskal gizartean, egunerokoan, ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko, baita aurrerapen eta jarduketa nagusiak bere inguruan barne hartzeko eta jakinarazteko ere. Horrek guztia hartzen du ingurumenaren babesaren eta kutsaduraren prebentzioaren alde lan egitea ikuspegi jasangarri batetik, eredugarritasunaren eta Ihobeko pertsona guztien inplikazioaren bidez, ingurumenaren eta gizartearen hobekuntzan, gure jardueratik haratago. Zehazki, ahaleginak egingo ditugu:

- Urdaibai Ekoetxea zentroaren kudeaketan ingurumena etengabe hobetzeko konpromisoa hartzeko, kudeaketa horren neurketa, ebaluazioa eta jarraipena jasotzen dituen ekintza-plan espezifiko baten bidez, gure inpaktuak minimizatzera bideratuta.
- Natura-ingurunea babestea eta zaintzea sustatzeko, bai zentroko langileen artean, bai garatzen diren jardueretan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten eragile, erakunde eta publiko guztien artean. Horretarako Urdaibaiko Biosfera Erreserbako patronatuarekin lankidetzan ari gara.
- Aplikatzekoak diren eta borondatez izenpetzea erabakitzen den ingurumeneko legezko baldintzak eta araudiak betetzeko.

Printzipio horiek dira Ihobek Ekoetxea Urdaibain egiten duen jarduerarako ingurumen-helburuak eta -xedeak ezartzen dituen erreferentzia esparrua.

ALEXANDER BOTO BASTEGUIETA - 78868159D

Firmado digitalmente por ALEXANDER BOTO BASTEGUIETA - 78868159D
Fecha: 2023.12.05 18:26:44 +01'00'

# 4. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

**Ekoetxea Urdaibai**k ingurumena kudeatzeko sistema bat du, EMAS Erregelamenduaren arabera diseinatua eta ezarria.

Jarraian, ingurumen-kudeaketaren planteamendua jasotzen da grafikoki:







Ihobe sozietate publikoaren etengabeko hobekuntzaren zikloak aldaketa berriak barne hartzen ditu, baita alderdi interesdunen espektatibak eta kanpoko eta barneko beste gai batzuk sartzen dituen ikuspegi bat ere.

IKSa osatzen dute ingurumena kudeatzeko eskuliburuak, jarduerak eta zereginak nola egin behar diren deskribatzen duten prozedurek eta erregistroek. Erregistroek datuak agerian jartzen dituzte eta jarduerak abian jarri ondoren lortutako informazioa biltzen dute.

Urtero aztertzen dira **Ekoetxea Urdaibai**ri dagozkion barruko eta kanpoko gaiak. Testuinguruaren azterketa kanpotik eta barrutik egiten da. Kanpoko azterketan, mehatxu bat edo, aitzitik, beren bilakaeran aukera bat izan daitezkeen elementuak jasotzen dira. Bestalde, barruko azterketan, beste elementu batzuk sartzen diren, hala nola erakundearen baliabideak eta potentzialak, hortik erakundearen indarguneak eta ahuleziak identifikatu ahal izateko. Hau da, kudeaketan beharrezkoak diren kanpoko eta

barneko gaiak aztertu eta zehazten dira, eta **Ekoetxea Urdaibai**ri eragiten dioten eta/edo bere helburuak lortzera bultzatzen duten elementuak izan daitezkeenak identifikatzen dira.

Testuinguruaren azterketa horretatik abiatuta, eta berariaz eta Ekoetxea Urdaibairen ingurumen-kudeaketan oinarrituta, gogoeta bat egiten da kanpoko eta barneko faktore guztiei buruz, horiek erakundearen ingurumen-kudeaketaren bilakaerarako ahulezia eta indargune gisa ulertuta.

Euskal sektore publikoan sartutako erakundea den aldetik eta bere jardueraren izaera dela-eta, fokua euskal gizartean jartzen da, zerbitzuen azken hartzaile gisa, eta gizarteari balioa ematea du helburu.

Ildo horretatik, interes-taldeak eta haien beharrak eta espektatibak identifikatzen dira.

Zuzendaritzak urtero berrikusten eta eguneratzen ditu testuinguruaren azterketa eta interes-taldeen identifikazioa, berrikuspenaren esparruan.

# 5. INGURUMENA KUDEATZEKO ANTOLAKETA-EGITURAREN DESKRIBAPENA

Ekoetxea Urdaibairen IKS – ingurumena kudeatzeko sistema hura etengabe hobetzea bermatzen duen talde baten egunero-ko lanean oinarritzen da. Zuzendaritza da maila goreneko erantzulea, eta ingurumen-konpromisoa ezartzeaz, mantentzeaz eta hedatzeaz arduratzen da, baita Hobekuntza Plana lortzeko eta haren jarraipena egiteko behar diren baliabideak emateaz ere, besteak beste. Zuzendaritzak, era berean, ingurumen-arduraduna izeneko arduradun bat izendatu du ingurumena kudeatzeko zuzendaritzaren ordezkari.

Ingurumen-arduradunak erakundearen jarduerari lotutako ingurumen-alderdi guztien urteko jarraipena egiten du, ingurumen--helburuen itxiera aurkezten du, eta Zuzendaritzarekin batera etengabeko hobekuntzarako jarduera-ildo berriak aztertzen eta ebaluatzen ditu.

Era berean, Ingurumena Kudeatzeko Taldea sortu da, hobekuntzak identifikatzea eta helburuak formulatzea errazten duena.

Ihobeko hiru pertsonak eta hezkuntza-zerbitzuko kontratako pertsona batek osatzen dute Ingurumena Kudeatzeko Taldea.

Bai Zuzendaritzak, bai plantillako gainerako langileek parte hartzen dute eta inplikatzen dira ingurumena kudeatzeko sistemaren bilakaeran, eta ezinbesteko parte dira ingurumena hobetzeko helburuak urtero lortzeko.

Hona hemen erakundearen ingurumen-kudeaketarako organigrama:



# 3.

# ERAKUNDEAREN INGURUMEN-ALDERDIEN DESKRIBAPENA





**Ekoetxea Urdaibai**n prozedura bat ezarri da **Ekoetxea Urdaibai**n garatzen diren jarduerekin eta horiei lotutako ingurumen-inpaktuekin lotuta dauden edo egon daitezkeen ingurumen-alderdi guztien identifikazioa eta ebaluazioa sistematizatzeko bizi-zikloaren ikuspegitik. Era berean, urtero zehazten eta ebaluatzen dira espero diren emaitzetan eragina izan dezaketen arriskuak eta aukerak. Horretarako, besteak beste, honako hauekin lotutako arriskuak eta aukerak aztertzen dira:

- Ingurumen-alderdi garrantzitsuak.
- Lege-eskakizunak eta aplikatu beharreko beste eskakizun batzuk.
- Alderdi interesdunen beharrak eta espektatibak.
- Erakundearen eta haren testuinguruaren azterketa.
- Erakundearen Plan Estrategikoa.
- Aurreko auditoretzaren emaitzak.

Arrisku eta aukerei buruzko azterketaren emaitza gisa, eta aurrez zehaztutako ebaluazio-irizpide batzuk aplikatuta, horietatik zeintzuk izan diren garrantzitsuak finkatzen da, eta horietan lan egiteko behar diren jarduketak zehazten dira.

Ingurumen-alderdiei dagokienez, urtean behin gutxienez, eta aldaketak gertatzen badira edo jarduera berriak sartzen badira, berrikusi eta eguneratu egiten da **Ekoetxea Urdaibai**n garatzen dugun jarduerari lotutako zuzeneko alderdien, ingurumen-larrialdiko egoerei lotutakoen eta zeharkako alderdien identifikazioa.

Era berean, ingurumen-alderdi horiek ebaluatzeko irizpideak zehaztu dira.

# 1. INGURUMEN-ALDERDIAK IDENTIFIKATZEKO ETA EBALUATZEKO METODOLOGIA

Kontuan hartuta ingurumen-alderdi bat ingurumenarekin elkarreragin dezakeen erakunde baten elementu bat dela, **Ekoetxea Urdaibai**n identifikatu egin dira zuzeneko ingurumen-alderdiak (sorrera normaleko eta anomaloko egoeretan), zeharkako ingurumen-alderdiak eta larrialdi-egoeretako ingurumen-alderdiak.

## 1. ZUZENEKO INGURUMEN-ALDERDIAK ETA

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Zuzeneko ingurumen-alderditzat ulertzen da erakundeak kudeaketa-kontrol osoa duen jarduera eta zerbitzuak garatzearen ondorioz sortzen dena, eta funtzionamendu-egoera normala eta anomaloa bereizten dira.

⇒ **Egoera normala:** jardueraren funtzionamendu-egoera ohikoa eta planifikatua, bere kudeaketa kontrolatzen denekoa

⇒ **Egoera anomaloa:** egoera irregularra edo arraroa. Testuinguru honetan, oso maiz gertatzen ez den edczein egoera ezohikotzat edo anomalotzat jo daiteke, hala nola: instalazioen mantentze-lanekin lotutako hondakinak sortzea (ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak sortzea, etab.), instalazioren batek gaizki funtzionatzea, etab.

Zuzeneko ingurumen-alderdi horiek identifikatzean, honako hauek barne hartzen dira, besteak beste: materialen kontsumoa, energia--kontsumoak, hondakinak sortzea, emisio atmosferikoak, etab.

Identifikatu diren zuzeneko ingurumen-alderdiak erakundearen instalazioetatik garatzen den jarduerari zuzenean lotutakoak dira.

## 2. ZEHARKAKO INGURUMEN-ALDERDIAK ETA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Zeharkako ingurumen-alderditzat hartzen dira erakunde baten eta hirugarrenen arteko elkarreraginaren emaitza izan daitezkeenak, baldin eta horietan zentzuzko maila batean eragin badaiteke. Hau da, Ekoetxea Urdaibaik kontrolik ez duen baina nolabaiteko eragina izan dezakeen alderdiak izango lirateke.

Ekoetxearen jarduera bera kontuan hartuta, garrantzitsutzat jo dira bai “alderdi interesdunen ingurumen-portaera”, baita “enpresa hornitzaileena” ere. Hala ere, “alderdi interesdunen portaera”rako soilik ezarri da helburua, enpresa hornitzaileen gainean kontratazio-prozeduraren bidez jarduten baita.

### 3. LARRIALDI-EGOERETAKO INGURUMEN--ALDERDIAK ETA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Larrialdi-egoerako ingurumen-alderditzat ulertzen da arrisku bati (kalte baten kontingentziari edo hurbiltasunari) lotutako alderdia, non ingurumenari, pertsonei edo ondasunei kalteak eragiteko arriskua baloratzen den. Larrialdi-egoerako ingurumen-alderdi baten adibide gisa, sutea aipa daiteke (lotutako emisioak, sutearen ondoriozko hondakinak, sua itzaltzea, etab.).

### 4. EBALUAZIOA: ALDERDI GARRANTZITSUAK

Zenbakizko balioetan oinarritutako ebaluazio-metodologia bat definitu da, alderdi mota bakoitzerako (zuzenekoa, zeharkakoa eta larrialdikoa) kalkulu-formula bat eta zenbakizko emaitza bat zehaztuta (emaitza horretatik abiatuta jotzen da alderdi bat garrantzitsua dela).

Horrela, urtean behin gutxienez, erakundearen alderdien kuantifikazioan oinarrituta, ebaluazio-irizpideak aplikatzen dira, eta, emaitza gisa, alderdi bakoitzaren garrantzia zenbakizko balio baten bidez lortzen da. Beren kategoriarako aurrez ezarritako zenbakizko balio maximoa berdindu edo gainditzen duten alderdi guztiak garrantzitsutzat jotzen dira, eta horiei lotutako ingurumen-inpaktua aztertu beharko du erakundeak. Halaber, hobetzeko aukeretan eta inbertsio- eta baliabide-beharretan oinarrituta, inpaktu horren gainean jarduteko ingurumen-helburu bat finkatu daitekeen ala ez zehaztu beharko du.

## 2. INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUAK

Aurreko puntuetan deskribatutako metodologia aplikatuta eta identifikatutako alderdiak kontuan hartuta, ingurumen-alderdi horien ebaluazioa egin da 2023an. Jarraian, garrantzitsuak izan zirenak zerrendatzen dira, 2023rako ingurumen-programan hobetzeko helburuak ezarri zirenekoak adierazita (2022ko bilakaera 2021aren aldean).

| Ingurumen-alderdi garrantzitsuak | Alderdi mota | Jarduera | Bizi-zikloaren etapa | Ingurumen-inpaktua | 2023ko helburua |
|---|---|---|---|---|---|
| A4 paperaren kontsumoa | ZUZENEKO INGURUMEN-ALDERDIAK | Bulegoa | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapak | Baliabide naturalak agortzea. Klima-aldaketa | EZ |
| A4 kartulina zurien kontsumoa | | | | | EZ |
| Toner-kontsumoa | | | | | EZ |
| Koaderno-azalen kontsumoa (eskola-programa) | | Ingurumen-hezkuntzako gunea | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapak | | EZ |
| Koaderno-kontsumoa (eskola-programa) | | | | Baliabide naturalak agortzea. Klima-aldaketa | EZ |
| Programazioaren hiru hilez behingo liburuxkaren kontsumoa | | | | | EZ |
| Janari biziaren kontsumoa | | Akuarioaren ustiapena | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapak | Baliabide naturalak agortzea. Klima-aldaketa | EZ |
| Geotermia-kontsumoa: hozte-energia | | Ingurumen-hezkuntzako gunea eta bulegoak | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapa | Baliabide naturalak agortzea. Klima-aldaketa | EZ |
| Sareko elektrizitatearen kontsumoa | | | | | BAI |
| A gasolioaren kontsumoa (soropil-ebakitzekoa) | | | | | EZ |
| Toner-hondakinak | | Ingurumen-hezkuntzako gunea | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapa eta amaitzeko etapa | Lurzoruaren kutsadura. Klima-aldaketa | EZ |
| Hondakin plastikoak | | Ingurumen-hezkuntzako gunea eta bulegoak | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapa eta amaitzeko etapa | Lurzoruaren kutsadura. Klima-aldaketa | EZ |
| Paper- eta kartoi-hondakinak | | | | | EZ |
| Hondakin organikoak | | Ingurumen-hezkuntzako gunea | Zerbitzua erabiltzeko eta emateko etapa eta amaitzeko etapa | Lurzoruaren kutsadura. Klima-aldaketa | EZ |
| Paper- eta kartoi-hondakinak | | | | | EZ |
| Hondakin plastikoak | | | | | EZ |

| Ingurumen-alderdi garrantzitsuak | Alderdi mota | Jarduera | Bizi-zikloaren etapa | Ingurumen-inpaktua | 2023ko helburua |
|---|---|---|---|---|---|
| Bezeroaren/herritarren ingurumen-portaera | ZEHARKAKO INGURUMEN-ALDERDIAK | Ingurumen-hezkuntzako gunea (herritarrak) | Zerbitzua emateko etapa | Ingurumena hobetzeko ekarpena/trakzioa Klima-aldaketaren aurkako borrokarako ekarpena | BAI |
| Ekoetxeko gainerako zentroen ingurumen-portaera | | Ekoetxea Sarearen ustiapena (gobernantza-eredua) | Ingurumena hobetzeko ekarpena/trakzioa Klima-aldaketaren aurkako borrokarako ekarpena | Contribución/tracción a la mejora ambiental. Contribución a la lucha contra el cambio climático | EZ |
| Kongresu-gunea alokatzen duten organizazioen/erakundeen ingurumen-portaera | | Ekitaldiak antolatzea | Zerbitzua diseinatzeko, emateko eta amaitzeko etapa | Ingurumena hobetzeko ekarpena/trakzioa Klima-aldaketaren aurkako borrokarako ekarpena | BAI |



Adierazi denez, larrialdi-egoerako ingurumen-alderdi bakar bat ere ez zen garrantzitsua izan.

Garrantzitsuak izan arren hobetzeko helbururik ezarri ez den ingurumen-alderdiei dagokienez, adierazi behar da aztertu egin direla, eta baloratu dela jardueraren beraren beharren arabera aldatzen diren eta hobetzeko aukerarik ez duten igoeren ondorio dela haien garrantzia. Hala ere, ingurumena kudeatzeko sistemak ingurumen-alderdi horien jarraipena egiten du, eta, nahiz eta alderdi horiei buruzko ingurumen-helburu zehatzik ez ezarri, horien jarraipena eta kontrola bermatzen da; horrela, portaera anomalo bat hautematen bada, horiek zuzentzeko behar diren ekintzak aztertu eta ezartzen dira.

# 4.

# INGURUMEN-PROGRAMAREN HELBURUAK 2023RAKO



2023an egindako ebaluazioaren ondoren garrantzitsuak suertatu diren ingurumen-alderdiak eta arrisku eta aukerei buruzko ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta, **Ekoetxea Urdaibai**n 2023rako jardunbide hauek zehaztu dira ingurumen-kudeaketaren esparruan, dagozkion ekintzak, adierazleak, arduradunak eta epeak ezarrita:

| Zk. | Jatorria | Hobetzeko helburua | Helmuga | Adierazlea | Ekintzak | Epea | Arduraduna | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | AMIA - Mota orotako bezeroentzako eskaintza (unibertsala) eta 24/7 | **Ingurumen-hezkuntzako eskaintza eta bisitarien ingurumen-portaera hobetzea** | Herritarren parte-hartzea ekarriko duten jarduketa berriak sustatzea | Bisitarien ingurumen-portaera hobetzea ekarriko duten diseinatutako ekimenen kopurua | Herritarren parte-hartzea ekarriko duten ekimen berriak aztertzea eta diseinatzea | 2023 | Ihobe eta Ekoetxeko ingurumen-hezkuntzako pertsonala | Barne-dedikazioko orduak |
| | | | | Ezarritako ekimenen kopurua | Gutxienez 1 jarduketa egitea | 2023 | | Barne-dedikazioko orduak + bileretako joan-etorrien kostuak |
| | Zeharkako ingurumen-alderdi garrantzitsua - Herritarren eta bezeroaren ingurumen-portaera | | Hezkuntza-mezua berriz diseinatzea | Eguneratzearen % | Erakusketa-materiala eguneratzea, klima-aldaketarekiko sentsibilizaziora bideratuta | 2023 | | Dedikazio-orduak + materialaren kostuak |
| | AMIA - Gure publikoak ez ezagutzea, haiek segmentatzea eta ezagutzea | | Gure publikoa zein den hobeto ezagutzea | Tresna kopurua | Gure bezeroen profilaren ezagutza erraztu eta hobetuko duten tresnak inplementatzea | 2023 | Ihobe | Dedikazio-orduak + aplikazio-kostuak |
| 2 | Zuzeneko ingurumen-alderdia - Ur-kontsumoa | **Ur-kontsumoan dugun efizientzia hobetzea** | Pertsonako ur-kontsumoaren ratioa % 2 murriztea (jarduera = bisitariak + plantilla) | Kontsumitutako $m^3$ uraren % / pertsonen adierazlea | Txorrotak berritzea | 2023 | Ihobe | Txorrota berrien kostuak |
| 3 | Zuzeneko ingurumen-alderdi garrantzitsua - Sareko elektrizitatearen kontsumoa | **Elektrizitate-kontsumoan dugun efizientzia hobetzea** | Pertsonako elektrizitate-kontsumoaren ratioa % 2 murriztea (jarduera = bisitariak + plantilla) | Kontsumitutako kWh sareko elektrizitatearen % / pertsonen adierazlea | Kontsumoan jardunbide egokiak ezartzea | 2023 | Ihobe eta Ekoetxeko ingurumen-hezkuntzako pertsonala | Barne-dedikazioa |
| 4 | Zeharkako ingurumen-alderdi garrantzitsua - Kongresu-gunea alokatzen duten erakundeen ingurumen-portaera | **Ingurumen-irizpideak inplementatzea Ekoetxea Urdaibairen kudeaketan** | Ekoetxea Urdaibai Erronka Garbia Esparru gisa ziurtatzea | Egina (BAI/EZ) | Barrutian Erronka Garbia inplementatzea | 2023 | Ihobe | Barne-dedikazioko orduak |

Ondoren, 2023an egindako hobekuntza-jarduerei buruzko informazioa biltzen da, ezarritako ingurumen-helburuekin lotuta.

## 1. HELBURUA: INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ESKAINTZA ETA BISITARIEN INGURUMEN-PORTAERA HOBETZEA

Arrisku eta aukerei buruzko azterketan (zehazki, gure publikoen eta haien segmentazioaren ezagutza-falta identifikatzean), helburu bat ezarri zen: **ingurumen-hezkuntzako eskaintza eta bisitarien ingurumen-portaera hobetzea.** Helburu horrek, aldi berean, 3 helmuga finkatzera eraman gintuen:

- **1. helmuga:** herritarren parte-hartzea ekarriko duten jarduera berriak sustatzea.
- **2. helmuga:** hezkuntza-mezua berriz diseinatzea.
- **3. helmuga:** xede-publikoa zein den hobeto ezagutzea.

Herritarren parte-hartzea ekarriko duten jarduera berriak sustatzeko **1. helmuga**ri dagokionez, zeregin hauek aurrera eraman ziren:

- Herritarrei erronka bota zitzaien uda aurretik CO2-emisioak 300 tona murrizteko. “THE PLANET APP” izeneko aplikazio mugikor baten bidez, erabiltzaileek beren bizi-ohiturei lotutako berotegi-efektuko gasen emisioak estima zitzaketen. Planeta Jasangarriaren egunean egin zen, eta bideo bat zabaldu zen haren azalpenarekin.

- Era berean, **Ekoetxea Urdaibai**n *Ingurumenaren Mundu Eguna* antolatu eta Gobernu Kontseilua egin zen. Bertan, Eskola Jasangarrien Sariak banatu ziren, jarduera-programazio zabalarekin.

- Azkenik, **Ekoetxea Urdaibai**k bat egin zuen *Planetaren Ordua*rekin. Ekitaldi horretan zabaldutako bideo labur baten bidez, euskal herritarrei kontzientziatzea eskatzen zitzaien erronka global digital honen hurbiltasunaren eta argiak itzaltzea bezalako keinu sinbolikoen garrantziaren aurrean.

Bestalde, ekitaldi hauek antolatu ziren, besteak beste:

- *Asteklima,* ekimen honek helburu du herritarrak trantsizio energetiko eta klimatikoaren aurrean kontzientziatzea eta mobilizatzea.

*Urdaibaiko tokiko produktuari* buruzko jardunaldiak, do-

- zena bat esperientziaz osatuak, non kontsumitzaileek bertako elaborazio-prozesuak eta laborantza eta abeltzaintzako metodoak bizi izan zituzten.

- Ekoetxea Sareak antolatutako *hondakinen bilketa kolaboratiboak*: 433 pertsona bildu ziren eta 3 tona zabor baino gehiago erretiratu ziren.

- Gainera, **Ekoetxea Urdaibai**k Hondakinen Prebentzio Astearen inguruko esperientzia bat eskaintzen du ("Ez zaitez biltzen utzi!" 7+1) familiek uler dezaten garrantzitsua dela ekonomia lineal batetik ekonomia zirkular batera igarotzea.

**2. helmuga**ri dagokionez, eduki eta baliabide museografikoak aldatzen ari dira erakusketa iraunkor berri baten bidez. Eusko Jaurlaritzak ingurumenaren arloan dituen estrategiak eta egungo lan-ildo nagusiak kontuan hartuta, erabaki da azalpen-muntaketa horren gaia egungo larrialdi klimatikora bideratzea. Helburua da klima-aldaketa, horrek eragiten dituen ondorioak eta pertsona eta gizarte gisa garatu behar ditugun arintze- eta egokitze-mekanismoak xehetasunez ezagutaraztea.

Gainera, "European Wildlife Photographer of the Year"en aldi baterako erakusketa berri bat planteatzen da. Munduko argazki-lehiaketa ospetsuenetako bat da eta Natura Argazkilaritzaren Alemaniako Elkarteak (GDTk) antolatzen du. Urte horretan XXIV. edizioa egin zen eta 42 herrialdetako 18.000 irudik hartu zuten parte.

Azkenik, **3. helmuga**ri erantzuteko, tresna berri bat inplementatu da. Horren bidez, publikoaren segmentazio batetik abiatuta, aukera egongo da hezkuntza-esperientziak modu egokituan eskaini ahal izateko; batez ere, lau mailatako neurketa-sistemarekin (parte-hartzea, gogobetetzea, aplikazioa eta ikaskuntza). Dagoeneko diseinu-proiektuan eta proba-fasean dago.

## 2. HELBURUA:
## UR-KONTSUMOAN EFIZIENTZIA HOBETZEA

Zuzeneko ingurumen-alderdien azterketatik abiatuta, eta uraren kontsumoan garrantzi handia lortu ez arren, 2. helburua ezartzea erabaki zen: uraren kontsumoan efizientzia hobetzea. Horren arrazoia da barne-hobekuntzako kultura bat dagoela, azpiegituretan hobekuntzak egitea planteatu diguna, hala nola txorrotak sistema efizienteagoetara aldatzeko aukera. Zehazki, Ekoetxea Urdaibain pertsonako ur-kontsumoa % 2 murrizteko helburua dugu (jarduera-adierazlea). Horretarako, txorrotak berritzeko jarduketa bat egin zen eta kontsumo-jardunbide egokiak nabarmendu ziren.
Uraren kontsumoaren datua 335,69 m³-koa izan zen 2023an,

eta, 2022an kontsumoa 328,88 m³-ra iritsi zela kontuan hartuta, % 2,07ko igoera txiki bat izan da. 2023ko erabiltzaile bakoitzeko kontsumo-ratioa 0,0054 m³-koa da jarduera-adierazleko, eta 2022an 0,0057 m³-koa izan zen jarduera-adierazleko. Hala, 2023tik kontsumoan % 5eko murrizketa lortu da. Hortaz, ezarritako hobekuntzei esker lortu eta gainditu da murrizketa-helburua.

## 3. HELBURUA: ELEKTRIZITATE-KONTSUMOAN EFIZIENTZIA HOBETZEA

Zuzeneko ingurumen-alderdien azterketatik abiatuta, zehazki sareko elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, elektrizitate-kontsumoaren efizientzia hobetzeko helburua ezarri zen, helburu hori sareko elektrizitatearen kontsumoa % 2 murrizteko helburu zehatz batera eramanda.

Kontsumo elektrikoari dagokionez, langileen eta erabiltzaileen artean nabarmendu egin da jardunbide egokiak aplikatu beharra. 2022an sareko elektrizitatearen kontsumoaren datua 202.730,78 kWh-koa da, eta 2023an 131.076,72 kWh-ra iritsi da. 2022an erlatibizatuta, kontsumoa 3,53 kWh-koa izan zen jarduera-datuko, eta 2023an 2,12 kWh-koa izan zen jarduera-datuko. Beraz, % 40 inguruko murrizketa lortu da kontsumo mota horretarako, eta, ondorioz, proposatutako % 2ko murrizketaren helburua zabal betetzat jotzen da.

## 4. HELBURUA: INGURUMEN-IRIZPIDEAK INPLEMENTATZEA EKOETXEA URDAIBAIREN KUDEAKETAN

Helburu hau zeharkako ingurumen-alderdi batetik dator (kongresu-gunea alokatzen duten erakundeen ingurumen-portaeratik), eta ERRONKA GARBIA metodologia aplikatzeko helmugak ezartzen ditu.

2023an, ERRONKA GARBIA metodologia ezarri zen eta ekitaldiak ziurtatzea lortu zen, horien artean Ingurumenaren Mundu Eguna. Era berean, Erronka Garbia Esparru gisa ziurtatu dira Urdaibaiko Ekoetxeko Padura Aretoa eta Auditoriuma. Ziurtapen horrek aukera ematen die gune horietan ekitaldiak egiten dituzten erakundeei Erronka Garbia ekitaldi gisa modu sinplifikatuan ziurtatzeko.

# 5.

# INGURUMEN-PORTAERAREN DESKRIBAPENA



# INGURUMEN-PORTAERAREN ADIERAZLEAK

**Ekoetxea Urdaibai**n laneko dokumentuak daude erakundearen eragiketen funtsezko ezaugarriak aldizka kontrolatzeko eta neurtzeko, eta ingurumen-portaeraren eta eragiketa-kontrol garrantzitsuen emaitzen jarraipena egiteko.

**Ekoetxea Urdaibai**ren jarduerak Madariaga Dorretxean garatzen dira. Bertan, Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuarekin partekatzen du espazioa. Hain zuzen, patronatu hori da eraikineko instalazioak mantentzeko eta berrikusteko lanen arduraduna. Horregatik, ingurumen-alderdi jakin batzuk, hala nola energia--kontsumoa, ur-kontsumoa, hondakin-sorrera eta abar, eraikin osoari eragiten dioten ingurumen-alderdiak dira, eta erlatibizatu egiten dira Ekoetxea Urdaibairentzat. Horrela, jarduerari konputatzekoa den kontsumoaren eta/edo sorreraren zatia zehazten da.

Horretarako, zuzeneko ingurumen-alderdiekin lotutako **oinarrizko adierazleak** ezartzen dira, eta **Ekoetxea Urdaibai**ren portaera zehazki baloratzen da.
Oinarrizko adierazle bakoitzak osagai hauek ditu:

| Ingurumen-esparrua | Adierazleak | Adierazle mota |
|---|---|---|
| **Energia** | Zuzeneko energia-kontsumo guztizkoa | Oinarrizkoa |
| | Energia elektrikoaren kontsumoa | Espezifikoa |
| | Erregai-kontsumoa | Espezifikoa |
| | Energia berriztagarriaren guztizko kontsumoa | Oinarrizkoa |
| **Materialak** | Erabilitako material nagusien urteko masa--fluxua | Oinarrizkoa |
| | Barneko paperaren kontsumoa | Espezifikoa |
| | Kanpoko paperaren kontsumoa | Espezifikoa |
| | Toner-kartutxoen kontsumoa | Espezifikoa |

| Ingurumen-esparrua | Adierazleak | Adierazle mota |
|---|---|---|
| **Hondakinak** | Urtean guztira sortutako hondakinak | Oinarrizkoa |
| | Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak | Oinarrizkoa |
| | Urtean guztira sortutako hondakin ez-arriskutsuak | Espezifikoa |
| | Sortutako paper- eta kartoi-hondakinak | Espezifikoa |
| | Sortutako ontzi- eta plastiko-hondakinak | Espezifikoa |
| | Sortutako zaborra | Espezifikoa |
| | Sortutako toner-kartutxoen hondakinak | Espezifikoa |
| | Sortutako hondakin ofimatikoak | Espezifikoa |
| **Emisioak** | Urteko guztizko aire-emisioak (NOx) | Oinarrizkoa |
| | Urteko guztizko aire-emisioak (SO2) | Oinarrizkoa |
| | Urteko guztizko aire-emisioak (PM) | Oinarrizkoa |
| | Urteko guztizko BEG-emisioak (CO2, CH4, N2O, HFCs, PFCs, NF3 eta SF6) | Oinarrizkoa |
| **Ura** | Urteko guztizko ur-erabilera | Oinarrizkoa |
| **Lurzoruaren erabilera biodibertsitatearekin lotuta** | Lurzoruaren guztizko erabilera | Oinarrizkoa |
| | Guztizko azalera zigilatua | Oinarrizkoa |
| | Zentroko guztizko azalera izaeraren arabera bideratuta | Oinarrizkoa |
| | Zentrotik kanpoko guztizko azalera izaeraren arabera bideratuta | Oinarrizkoa |

**A zifra bat:** Kontuan hartutako eremuan urtean izandako inpaktua/kontsumoa adierazten du.

**B zifra bat:** Ekoetxea urtero bisitatzen duten pertsonen kopuruak eta zentroko langileen kopuruak osatzen dute, eta zifra hori iraunkor mantendu da azken 4 urteetan (13 pertsona).

B zifra (pertsonen guztizkoa) alderdi guztiei aplikatzen zaie, bulegoko materialaren kontsumoari (A4 paperaren eta tonerraren kontsumoari) eta toner-hondakinei izan ezik. Horietan langileen plantilla hartzen da kontuan.

| | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|
| Langileak | 13 | 13 | 13 | 13 |
| Bisitari kopurua | 30.410 | 58.565 | 57.321 | 61.727 |
| **PERTSONAK GUZTIRA (B zifra)** | **30.423** | **58.578** | **57.334** | **61.740** |

⇒ **R zifra bat**: A/B erlazioa adierazten du..

Jarraian, **Ekoetxea Urdaibai**ren oinarrizko adierazleei buruzko informazioa jasotzen da.

# 1. ENERGIA

## ZUZENEKO ENERGIA-KONTSUMO GUZTIZKOA

(Fakturetatik, energia kudeatzeko sistemaren txostenetik eta barne-inbentariotik lortutako datuak. Eraikinaren energia-kontsumoen kasuan, datuak erlatibizatu egiten dira Ekoetxea Urdaibairen jarduerak okupatzen dituen m2-en arabera)

Atal hauetan **Ekoetxea Urdaibai**ren jarduerak kontsumitutako energia motak identifikatzen dira:

- Saretik datorren elektrizitatea (Ekoetxearen kasuan, % 100 iturri berriztagarrietatik dator).
- Plaka fotovoltaikoetatik datorren energiaren autokontsumoa.
- Geotermia-autokontsumoa.

Kasu horietan guztietan, **Ekoetxea Urdaibai**ri konputatzekoa zaion zatia zehazteko, urteko guztizko datuak hartu dira kontuan, eta eraikineko jarduerak okupatzen duen espazioaren m2 konputagarrien arabera erlatibizatu dira.

Bestalde, kanpoko lorategiak mantentzeko erabiltzen den soropil-ebakitzekoaren gasolio-kontsumoa ere sartzen da, hori ere **Ekoetxea Urdaibai**ren kudeaketarekin lotuta. Kasu honetan, urteko kontsumoari buruzko datu estimatu bat ematen da, denboran mantentzen dena. Datu hori emateko, aurretik gasolio-kontsumoaren datua bihurtu da. Kontsumo hori azken hiru urteetan mantendu egin da:

| | Bihurketa-faktorea | 2020, 2021, 2022 eta 2023 | |
|---|---|---|---|
| | | litroak | kWh |
| **A (I) -B7 gasolioa** | 10,3 kWh/l | 180 | 1.854,00 |

*ITURRIA: MENAE plataforman jarduketa-ildoak betetzeko gida. MITECO IDEA. Madril, 2019ko martxoaren 19a*

Hona hemen datuak:

| | Urtea | kWh | kWh/pertsona | 2023/2022ko bilakaera | Kalkulu-metodoa |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zuzeneko energia--kontsumo guztizkoa** | 2020 | 446.019,33 | 14,66 | **Positiboa:** % 10,3 murriztu da zuzeneko energia-kontsumo guztizkoa pertsonako | Energia elektrikoaren kontsumoa (kWh) + berotze-geotermiaren kontsumoa (kWh) + hozte--geotermiaren kontsumoa (kWh) + fotovoltaikotik datorren autokontsumoa (kWh) + A gasolioaren kontsumoa (kWh) |
| | 2021 | 478.388,57 | 8,17 | | |
| | 2022 | 514.651,72 | 8,98 | | |
| | **2023** | **496.983,29** | **8,05** | | |
| **Energia elektrikoaren kontsumoa** | 2020 | 155.807,51 | 5,12 | **Positiboa:** % 40 murriztu da energia elektrikoaren kontsumoa pertsonako | Energia elektrikoaren kontsumo-ratioa (kWh) / pertsonen datua<br><br>Datuaren iturria: fakturek emandako datua Patronatuaren bidez |
| | 2021 | 198.004,04 | 3,38 | | |
| | 2022 | 202.730,78 | 3,54 | | |
| | **2023** | **131.086,72** | **2,12** | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Berotze-geotermiaren kontsumoa** | 2020 | 122.766,65 | 4,04 | **Negatiboa:** % 21 igo da berotze-geotermiaren kontsumoa pertsonako. Enpresa administratzaileak (TELURek) arazoak izan zituen 2023ko lehen erdian balioa monitorizatzeko | Berotzeko geotermia-energiaren kontsumo-ratioa (kWh) / pertsonen datua<br><br>Datuaren iturria: fakturek emandako datua Patronatuaren bidez |
| | 2021 | 148.314,35 | 2,53 | | |
| | 2022 | 151.559,71 | 2,64 | | |
| | **2023** | **197.291,23** | **3,20** | | |
| **Hozte-geotermiaren kontsumoa** | 2020 | 112.973,59 | 3,71 | **Positiboa:** % 0,8 murriztu da hozte-geotermiaren kontsumoa pertsonako | Hozteko geotermia-energiaren kontsumo-ratioa (kWh) / pertsonen datua<br><br>Datuaren iturria: fakturek emandako datua Patronatuaren bidez |
| | 2021 | 77.874,23 | 1,33 | | |
| | 2022 | 108.788,70 | 1,90 | | |
| | **2023** | **116.321,31** | **1,88** | | |
| **Fotovoltaikotik datorren autokontsumoa** | 2020 | 52,617,58 | 1,73 | **Positiboa:** % 5,8 murriztu da fotovoltaikotik datorren autokontsumoa pertsonako | Fotovoltaikotik datorren autokontsumo-ratioa (kWh) / pertsonen datua<br><br>Datuaren iturria: fakturek emandako datua Patronatuaren bidez |
| | 2021 | 52.341,95 | 0,89 | | |
| | 2022 | 49.718,53 | 0,87 | | |
| | **2023** | **50.430,03** | **0,82** | | |
| **A gasolioaren kontsumoa** | 2020 | 1.854,00 | 0,061 | **Positiboa:** % 7,13 murriztu da gasolioa-kontsumoa pertsonako | A gasolioaren kontsumo-ratioa (kWh) / pertsonen datua<br><br>Datuaren iturria: lorezainak emandako datua |
| | 2021 | 1.854,00 | 0,032 | | |
| | 2022 | 1.854,00 | 0,032 | | |
| | **2023** | **1.854,00** | **0,030** | | |
| Sortutako energia berriztagarria guztira | **Ekoetxea Urdaibai**k ez du iturri berriztagarrietatik etorritako energiarik ekoizten. | | | | |


Zuzeneko energia-kontsumo guztizkoa motaren arabera
kWh/pertsona
9.00
8.00
7.00
6.00
5.00
4.00
3.00
2.00
1.00
0.00
2.12
3.20
1.88
0.82
0.030
3.54
2.64
1.90
0.87
0.032
3.38
2.53
1.33
0.89
0.032
5.12
4.04
3.71
1.73
0.061
2023
2022
2021
2020
ELEKTRIZITATE SAREA
BEROTZE ENERGIA GEOTERMIKOA
HOZTE ENERGIA GEOTERMIKOA
FOTOVOLTAIKOTIK DATORREN AUTOKONTSUMOA
A GASOLEOA


Zuzeneko energia-kontsumo guztizkoaren adierazlea (kWh/pertsona)
kWh/pertsona
16.00
14.00
12.00
10.00
8.00
6.00
3.00
2.00
0.00
8.05
8.98
8.17
14.66
2023
2022
2021
2020

## ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN GUZTIZKO KONTSUMOA

(Hornitzailearen fakturetatik lortutako datuak, Ekoetxea Urdaibairen jarduerak okupatzen dituen m²-en arabera erlatibizatuak):

| | Urtea | kWh | kWh/pertsona | 2023-2022ko bilakaera | Kalkulu-metodoa |
|---|---|---|---|---|---|
| **Energia berriztagarriaren guztizko kontsumoa** | 2020 | 444.165,33 | 14,60 | **Positiboa:** % 10,3 murriztu da energia berriztagarriaren guztizko kontsumoa pertsonako | Energia elektrikoaren kontsumoa (kWh) + berotze-geotermiaren kontsumoa (kWh) + hozte-geotermiaren kontsumoa (kWh) + fotovoltaikotik datorren autokontsumoa (kWh) |
| | 2021 | 476.534,57 | 8,14 | | |
| | 2022 | 512.797,72 | 8,94 | | |
| | **2023** | **495.129,29** | **8,02** | | |

### Energia berriztagarriaren guztizko kontsumoaren adierazlea (kWh/pertsona)



## 2. MATERIALAK

Jarraian, material nagusien kontsumoaren efizientzia zehazten da (hornitzailearen fakturetatik eta barne-inbentariotik lortutako datuak), motaren arabera bereizita:

| | Urtea | kg | kg/pertsona* | 2023-2022ko bilakaera | Kalkulu-metodoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Erabilitako material nagusien urteko masa-fluxua | 2020 | 413,59 | 0,0136 | **Positiboa:** % 44 murriztu da urteko masa-fluxua pertsonako | A4 paperaren kontsumoa (kg) + toner-kartutxoen kontsumoa (kg) + beste material batzuen kontsumoa (kg) + dibulgazio-materialen kontsumoa (kg) + akuarioko materialen kontsumoak (kg) + mantentze-lanetako materialen kontsumoak (kg) |
| | 2021 | 775,33 | 0,0132 | | |
| | 2022 | 828,75 | 0,0145 | | |
| | **2023** | **502,95** | **0,0081** | | |
| A4 paperaren kontsumoa | 2020 | 12,50 | 0,96 | **Positiboa:** % 30 murriztu da A4 paperaren kontsumoa pertsonako | ∑ kontsumitutako A4 paper-paketeen kopurua * A4 paketearen pisua<br>2,5 kg/pakete estimatzen da<br><u>Datuaren iturria:</u> Administrazioak emandako datua |
| | 2021 | 17,50 | 1,35 | | |
| | 2022 | 20 | 1,54 | | |
| | **2023** | **14** | **1,08** | | |
| Toner-kartutxoen kontsumoa | 2020 | 6,64 | 0,51 | **Positiboa:** % 50 murriztu da toner-kontsumoa pertsonako | ∑ kartutxo kopurua * kartutxoaren pisua<br>0,664 kg/unitate estimatzen da<br><u>Datuaren iturria:</u> Administrazioak emandako datua |
| | 2021 | 3,98 | 0,31 | | |
| | 2022 | 7,97 | 0,61 | | |
| | **2023** | **3,99** | **0,30** | | |
| Beste material batzuen kontsumoa | 2020 | 10,40 | 0,00034 | **Positiboa:** ez da beste materialik kontsumitu | ∑ (kartulinen kopurua * kartulinaren pisua)<br>Gutun-azalak: 0,008 kg/unitate estimatzen da<br>Kartulinak: 0,012 kg/unitate estimatzen da<br><u>Datuaren iturria:</u> Administrazioak emandako datua |
| | 2021 | 14,40 | 0,00025 | | |
| | 2022 | 14,40 | 0,00025 | | |
| | **2023** | **0** | **0** | | |

